

957.600 euroko eskaera Gobernuari

NAFARROAKO AEK-k eta IKAK Parlamentuarekin lankidetzat hitzarmena sinatzea ezinbestekotzat dute. Halakorik ez da gertatu orain arte eta bitartean, 2011ko aurrekontuei begira, 956.600 euro eskatu ditu Nafarroako eskalduntze alfabetatzeko hainbat eragilek. Diru kopuru hori lehen pausotzat dute AEK-k eta IKAK. Eskaria, azken urteetan euskaltegi ez publikoek diru-laguntzetan izan duten beherakadaren testuinguruan kokatzen da. Azken hamarkadan laguntzen jaitsiera, Kontsumo Prezioen Indizea kon-tuan hartuta, %51koa izan da.

Frantziako Parla-mentuan lege proposamena

DIPUTATU TALDE BATEK hizkuntza gutxituen aldeko lege proposamen bat eztabaidatzeko eskaria egin dio Parlamentuko Presidentziari. Alderdi guztietako diputatuek izenpetu dute proposamena, UMPko diputatu batzuek izan ezik. Horiek beste lege proposamen bat aurkeztuko dute. Diputatuek aurkeztutako proposamenen ez da zuzen ageri hizkuntza gutxituei ofizialtasuna ematearen eskaria, baina eskatzen du zeharkako bideak erabiliz eta eskumenak tokiko erakundeen esku utziz, arloz arlo ofizialtasunak aitortuko lituzkeen hainbat eskubide eta lanabes bermatzea.

BAHEA

Mielk erabiltzaileak Tiraka blogean esanak: “Euskaldun berria naiz eta harro nago! Eta zu, euskaldun zahar hori, ez ote zara zaharregia niretzako? Txo, basko, emoztazu erraztasun apurtxue! Badakizu pribilegiatua zarela, euskaltasuna geneetan daramazula. Brontzezko estatua dirudizu hor goian gu euskaldun berri guztion gainean, zorabioa sumatzen duzu hona behera begiratzerakoan eta nahia-go duzu eguna eman zerura begira. Zaharra eta zerutiarra, earra elementua! Apaldu eta jaitsi apal gaintetik! Euskaldun berria naiz eta ez dut zahartu nahi, adurra daridala, miresmen aurpegiz zaharroi begira”.



Honelako albistek egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argaia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Egunean 90 zentimorekin bizirautea

Urrunekoa eta gure kontsumo gizartean ia ezinezkoa iruditzen zaigun arren, milioika pertsona daude munduan egunean euro bat baino gutxiagorekin “bizirautea” dutenak. Milioika lagun horiek landa guneetan bizi dira, ozta-ozta, munduko populazioak landatarra izaten jarraitzen baitu, hiritarra baino. 3.100 milioi pertsona, hau da, biztanleria osoaren %55, landa guneetan bizi da, bereziki Afrika, Asia eta Hego Amerikan. Horietatik 1.400 milioi muturreko pobrezian bizi dira –egunean 0,90 euroekin bizi dira–, eta 1.000 milioi inguruk gosea pasatzen du: gosea pasatzen duten hamar lagunetik zazpi landa gunean bizi da. Datu horiek eman ditu Nekazaritzaren Garapenerako Nazioarteko Funtsak idatzitako *Pobrezia landa gunean 2011* txostenak.

Hori da munduko egoera. Sistema ekonomiko injustu, diskriminatzaile, insolidario, terrorista eta hiltzailean bizi gara, eta izen bat du: kapitalismoa. Sistema honek babes politiko handia du munduan: planetako gobernu gehienak. Gobernu horiek, Espainian aire kontrolatzaileen kasuan bezala, esaten dute ez dutela xantaiarik onartzen eta Estatuari pultsua botatzen diotak, galdu egiten duela. Badaude, ordea, beste sektore batzuk, hala nola “Merkatuak” (banka handia, inbertsio eta pentsio funtsak, paradisu fiskalak...), estatuei xantaia egin eta etengabe pultsua botatzen ari zaienak. Eta merkatuok ez dute galtzen, irabazi egiten dute, herritarren eskubideak eta laguntza sozialak bortxatuz. Kapitalismoa, beraz, etengabe ari zaio estatuari pultsua botatzen eta miseria, pobrezia, gosea eta heriotza probokatzen planetaren zati handi batean, eta beti irabazten du. Ez badugu sistema kapitalista hau geldiarazten, planetaren erdia hilko du.

Juan Mari Arregi

Koro Navarro itzultzaileak

Iruñoloko Hitzan esanak:

“Argi daukat, lanbide honetan ez naizela aberastuko. Guk ez dugu soldata finkorik... Duela bi urte ikusi nuen zenbat irabazten dugun eta jota geratu nintzen. Disgustoa pasa zitzaidan eta nahiko ondo bizi naizela pentsatu nuen”.

Lionel Jolyk Jakinen 180. zenbakian esanak:

“Soziolinguista asko frogatu duenez, hizkuntzaren kasuan ez dirudi beldurra bultzatuz ezer lortzen denik, alderantziz. Emaitza baikorrenak lortzeko, badirudi hizkuntza emozio baikorrek lotu behar dela, hizkuntza erabiltzen denean poztasuna sentitzeko eta ondo sentitzeko. Kanpaina horietan, beraz, mezu baikorrak eman behar dira eta egiturak ere baikorra izan behar du; adibidez, agintea erabiltzea ez dirudi gauza egokiena, hala ere euskararen erabilera bultzatzeko asko erabiltzen da. Gainera disonantzia kognitiboak sortzen dituzten korapilo emozionalak ahalik eta gehien saihestu behar dira, ahal delarik kanpaina horiek euskara erabiliz korapiloak askatzeko balio behar dute”.